



Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea
Semana de Cine
Fantástico y de Terror
Horror and Fantasy
Film Festival

CARLOS ARECES DA PROTAGONISTA 2021EKO BELDURREZKO ASTEAREN KARTELEAN

*Argazkiak omenaldi egiten dio
Antonio Merceroren **La cabina** pelikula mitikoari*

Aurten, **Carlos Areces** aktorea da protagonista **urriaren 29tik azaroaren 5era** izango dugun **Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 32. Astearen** kartel ofizialean. Posterrak omenaldi egiten dio **La cabina** film ertain legendarioari; José Luis Garcik idatzia eta Lasarteko zinemagile Antonio Mercerok 1972an zuzendua.

José Luis López Vázquezen larruan jartzen da Carlos Areces; pelikulako protagonistaren irudia, López Vázquez kabinan ikusten dena bertatik atera ezinik, inolako zalantzarik gabe, Espainiako fantasiako generoaren historiak izan duen irudi ikoniko eta gogoratuenetako bat da.

La cabina, TVEk ekoiztua, 1972ko abenduaren 13an eman zen lehen aldiz, eta izugarritzko inpaktua sorrarazi zuen garaiko publikoarengan. Arrakasta handia lortu zuen nazioartean, mundu osoko telebistetan eman zuten, eta hainbat eta hainbat sari lortu zituen.

Argazkia **Alberto Moragok** egina da, eta *making of*aren arduraduna izan da ere.

Kartelaren diseinua, azken urteetan bezala, **Ytantos** estudioak egin du.

CARLOS ARECES

Aktorea, musikaria eta marrazkilaria, Carlos Areces erreferentziazko antzezle, baita moldakorrenetako bat ere, bilakatu da azken urteetan Espainiako zineman eta telebistan. TVEko **“La hora chanante”** (2002-2006) kultuko programatik igaro ondoren, zineman hasi zen lanean zenbait pelikulatan: **Spanish Movie** (Javier Ruiz Caldera, 2009) eta **Balada triste de trompeta** (Álex de la Iglesia, 2010), besteren artean.

Azken hamarkadan Espainiako zinema zuzendari gailenetako batzuekin lan egin du pelikula hauetan: **El gran Vázquez** (Óscar Aibar, 2010), **Lobos de Arga** (Juan Martínez Moreno, 2012), **Los amantes pasajeros** (Pedro Almodóvar, 2013), **Torrente 5: Operación Eurovegas** (Santiago Segura, 2014), **Mi gran noche** (Álex de la Iglesia, 2015), **Negociador** (Borja Cobeaga, 2015), **La reina de España** (Fernando Trueba, 2016), **Tiempo después** (José Luis Cuerda, 2018), **El inconveniente** (Bernabé Rico, 2020) eta **Orígenes secretos** (David Galán, 2020), besteak beste.

Gainera, lanean jarraitu du telebistarako hainbat sailetan: **“Muchachada Nui”** (2007-2010), **“Museo Coconut”** (2010-2014), **“Plutón BRB Nero”** (2008-2009) eta **“El pueblo”** (2019-), besteak beste.

Bere marrazkiak eta istorioak ere argitaratu ditu, besteren artean **El Jueves** argitalpenean eta, Aníbal Gómezekin batera, bere karrera musikalarekin jarraitzen du **Ojete Calor** bikotean.



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

KARTELA

Protagonista: **Carlos Areces**

Argazkia eta making of edizioa: **Alberto Morago**

Kabinaren eraikuntza: **Alberto Morago, Bea Durán**

Jantziak: **Nerea Torrijos**

Makillajea eta ile-apainketa: **Bea Durán**

Argi-laguntzailea: **Andrea Carilla**

Making of kamera: **Carmen Morago**

Abestia: **Lo nuestro, Havoc (Subterfuge Records)**

Diseinu grafikoa: **Ytantos**



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura